

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

Ullibarri-Gamboa herritik datozen hondakin-urak isurtzeko baimenaren berrikuspena, Arratzua-Ubarrundia udal-mugartean

Espediente-zenbakia: RAV-A-2022-0006.

Eskatzailea: Urbide – Arabako Ur Partzuergoa.

Urbide - Arabako Ur Partzuergoak Arratzua-Ubarrundia udal-mugartean dagoen Ullibarri-Gamboa herritik datozen hondakin-urak isurtzeko baimena berrikusteko eskatu du, berrituko den arazketa-sistemaren bidezko tratamendua jaso ondoren. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hilabeteko (1) epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Gamarrako Atea kalea 1. A - 11. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 29a

Isurketen arduraduna

AITOR BELDARRAIN URIONDO